



Udako arratsalde eder baten  
D. Pantaleon abadea atzera ta aurrera ebilen  
Iturritza bidean otoitz egiten. Halako baten

— **DRA!**

Gizon gazte bat agertu jakon, uste barik, aurrean.

— *Garitza ta artotza ederrak daukazuez aurten, e?*  
—esan eutsan.

— *Bai* —erantzun eutsan abadeak— *ederrak benetan!*

— *Ba jaukazat bada nik zuen gari ta artook hondatzeko\*moduko zaldiak*  
—esan eutsan, gero harro harro.

Abadea aurrean eukana deabrua zala konturaturik

## prakagorriak

— *Neuk ere ba <sup>bedakit</sup> <sup>zure</sup> jakiat hire zaldiak zelan lotu!* —esan eutsan.

Eta hori esanaz batera

— **DRA!** —aienatu\*egin jakon "gizona".

Abadea oso arduratuta gelditu zan.

Handik ordu batzutara eguzkia gero ta beroago... Eguraldia gero  
eta sargoriago\*...

Eta abadea ere gero eta larriago.

Inguruko mendi ganetik hodei\*baltzak agertzen hasi ziran.

Ilun-ilun egin zan eta trumoi hotsa gero ta hurrago entzuten zan.

— *Agur, gure arto ta gariak!* —inoen estu ta larri herrikoak.

Abadeak, eleiz-atorrak\*jantzi eta eleizpera urten eban sakristaugaz batera.

Zeruak lurrera jausi behar ebala zirudian.

— **DZIST, DZAST!** —hasi ziran oinaztu\*ta oinaztarriak\*zeru zabalean.

— *In nomine Patris...* —abadea,

eleiz liburua esku baten ebala eta hisopoa bestean.

Sakristau gizajoa abadearen ondoan dardara baten egoan

deabrua eta prakagorriak ikusten ebazalako

euren inguruan ebizela batera ta bestera amorruez beterik.

Azkenean, bildurraren bildurrez, estolatik\*oratu eutsan abadeari.

Abadea, barriz, bere zereginean aurrera,

baina prakagorriak sakristaugandik aldendu nahian...

— **ZAST!** Ikaragarritzko ostikadea emon eutsen prakagorriei

eta oinetakoa,\*urtenaz, lainoetaraino joan jakon...

Amaitu eban otoitza; amaitu ebaneko

deabru ta prakagorri guztiak ihes eginda egozen,

eta hodeiak alde eginda. Eguzkiak barriro agertu zan;

abadearen zapatea, ostera,

ez zan gehiago agertu!

\* hondatu = alperrik galdu  
\* aienatu = desaparezidu

\* sargori = goierre, egostua, bochorno  
\* hodeia = hedoia, nube

\* eleiz-atorra = sobrepelliz  
\* oinaztu = relámpago  
\* oinaztarria = rayo

\* estola = lepoko eleiz jantzia  
\* oinetakoa = zapatea